

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hizkuntza berekiak dituzten autonomia erkidegoak Nafarroan elkartu dira, hizkuntza politikak koordinatzeko

Nafarroa, EAE, Katalunia, Galizia, Valentziako Erkidego eta Balear Uharteetako ordezkariak parte hartu dute hizkuntza politikaren alorreko lankidetzako protokolo orokorraren jarraipen batzordean

Asteartea, 2018.eko apirilak 10

Nafarroako Gobernuko, Eusko Jaurlaritzako, Kataluniako *Generalitate*ko Galiziako *Xuntako*, Balear Uharteetako *Governeko* eta Valentziako *Generalitate*ko hizkuntza politikako ordezkariak topaketa bat izan dute gaur goizean Nafarroan beren hizkuntza berekiak sustatzera bideraturiko politikak koordinatzeko.



Uxue Barkos, Lehendakaria, hizkuntza berekiak dituzten erkidegoetako ordezkariekin.

Autonomia erkidegoek sinaturiko Hizkuntza politikaren alorreko lankidetzako protokoloaren jarraipen batzordearen baitan egindako topaketan izan dira Mikel Arregi,

Euskarabideko zuzendari kudeatzailea; Miren Dobaran, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako sailburuordea; Ester Franquesa, Kataluniako *Generalitate*ko Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia; Valentín García, Galizako *Xuntako* Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia; Marta Fuxá, Balear Uharteetako *Governeko* Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia; eta Rubén Trenzano, Valentziako *Generalitate*ko Hizkuntza Politikarako eta Eleaniztasunaren Kudeaketarako zuzendari nagusia.

Topaketan hizkuntza ofizialak sustatzeko politiken intereseko zenbait gai jorratu dira.

Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren aplikazioari dagokionez, Lehendakarietako eta Lurralde Administrazioetarako Ministerioko Autonomia Erkidegoekiko eta Toki Entitateekiko Harremanetarako Zuzendaritza Nagusiak informazioa eskatu zuten autonomia erkidegoei 2017ko otsailean. Informazio horrekin eta estatuarenarekin prestatu zen "Europako Kontseiluaren

Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak Espainian izandako betetze mailaren gaineko bosgarren txostena, 2014-2016 aldikoa". Txosten hori gaztelaniaz igorri zitzaion Europako

Kontseiluari, Espainiak Europar Batasunean duen ordezkari itza iraunkorraren bidez, joan den otsailaren 6an. Oraindik zehatu gabe dago noiz eginen dituen bisitak adituen batzordeak, bosgarren txostenaren edukia ordezkari instituzionalekin eta entitate sozialetakoekin joratzeko. Aurreikusita dago bisita horiek irailetik aurrerakoak izanen direla. Ondoren, txostena Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeari igorriko zaio, gomendioak eman ditzan. Bestetik, hizkuntza politikako arduradunek garrantzitsutzat jo dute txostenak Europako Kontseiluari informazio fidagarriagoa eta zehatzagoa igortzea. Adituen Batzordearen bisita baliatuko da txostena osatzeko.

Informazioa trukatu da jakiteko nola jokatzen den autonomia erkidego desberdinetan Funtzio Publikoan sartzeko orduan hizkuntza ofizialen ezagutza izateari dagokionez. Bileran

baloratu da ezagutza horrek balio behar duela bermatzeko herritarrek duten eskubidea beren autonomia erkidegoko hizkuntza ofizialeko zeinahi erabiltzeko, erkidego bakoitzean indarrean dagoen araudiaren arabera. Horregatik, jarraipen batzordean parte hartu dutenek beren kezka adierazi dute zenbait sektoretan eztabaidagai izaten ari delako funtzio publikoan sartzeko hizkuntza ofizialak ezagutzea baldintza izan behar ote den, hori denean modu bakarria hizkuntza hautatzeko eskubidea bermatzeko.

Hizkuntza gutxituetako irakasleei zuzendutako etengabeko prestakuntzako proiektua aztertu da, irakasleek prestakuntza izan dezaten ahozko hizkuntza irakasteko. Erabaki da proposatzea Hizkuntza Aniztasuna sustatzeko NPLD sareak babes dezala proiektu hori, Europako finantzazioa eskuratzeko, Erasmus + programaren bidez.

Aztergai hauek guztiak sartu dira 2018. urterako laneko planean. Valentzian eginen den ondoko bilkuran jarraipena emanen zaie.

Topaketaren baitan, autonomia erkidegoetako ordezkariak prentsaurrekoa eman dute Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollorekin batera. Kontseilariak azpimarratu du gisa honetako foroak garrantzitsuak direla gutxiengo hizkuntzak sustatzeko, jardunbide egokiak trukatzeko eta hizkuntza aniztasunaren gaineko politikak formulatzeko. Kontseilariaren esanetan, "hizkuntzek, bereizi baino, gizarte demokratiko gisa dugun balioa biderkatzen dute, eta gaurkoaren gisako topaketek horretan sakontzeko balio dute".

Ollok adierazi du euskara bizikidetzaren balio bat dela "Nafarroan indarrean den legerian duela 30 urte baino gehiago jasota dagoena". Kontseilariak bukatu du eskerrak emanez bertaratuei, beren prestasunagatik eta lankidetzarako duten borondateagatik.

Topaketa bukatzean, autonomia erkidegoek hitzordua izan dute Nafarroako Gobernuako lehendakari Uxue Barkosekin, harrera egin baitie Nafarroako Jauregiko Areto Berdean.

Lankidetzaren protokoloa

2007an, Eusko Jaurlaritzak, Kataluniako *Generalitatak* eta Galiziako *Xuntak* hizkuntza politikaren alorreko lankidetzaren protokolo orokorra sinatu zuten. Ondoren, Balear Uharteetako Gobernuak gehitu zitzaion protokoloari, eta 2017an Valentiako *Generalitatak* eta Nafarroako Gobernuak. Horrela, lehen aldiz ezarri ahal izan zen lankidetzaren esparru bat, beren autonomia estatutuen bidez ofizialtasun estatus aitortua duten hizkuntza berekidun autonomia erkidego guztiendako.

Protokoloak esparru orokor bat eta metodologia bat ezartzen ditu, elkarrekiko lankidetzaren garatzeko komunikazioaren alorrean, informazioa trukatzeko bilakaera soziolinguistikoaren jarraipenerako azterlan eta ikerketen gainean, argitalpen elektronikoaren gainean, hizkuntza eskubideen esparruan emandako urratsen gainean eta hizkuntza planen ezarpenaren gainean. Terminologiaren alorrean, informazioa trukatzeko metodologiaren eta laneko prozesuen gainean, normalizazio terminologikoko irizpideen gainean, terminologiak



Ollo kontseilaria eta Mikel Arregui gainontzeko bost ordezkarietako kideekin.

hedatzeko eta ezartzeko estrategien ganean eta ezarpen mailen jarraipena egiteko metodoen ganean. Estatuko eta EBko administrazioen esparruan hizkuntza ofizialen erabili eta babestearen alorrean, Estatuak eta EBk araudi ekintza eta neurriak har ditzaten sustatuz, gaztelaniaz bestelako hizkuntza ofizialen erabilera ahalbidetzeko haien erakundeetan.

Aintzat harturiko beste esparru batzuk dira sozioekonomia, irakaskuntza, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, hizkuntzaren erabilera soziala eta nazioarteko hedapena.